




MOBLOGGING-ERREPORTARIAK

Gero eta eskurago ditugun teknologiak erabiltzea, eduki eta albiste sortzaileak eratzeko, gure ikuspuntua emateko, interes berdintsuak dituzten komunitateak sortzeko, elkarrekin sozializatzeko, etab.etarako.

HELBURUAK	METODOLOGIA	PARTE-HARTZAILEAK	IRAUPENA
<ul style="list-style-type: none"> • Edukiak modu horizontalean mugi daitezten gizarte-sareak eta kanalak sustatzea. • Multimedia erredaktore-ideiarekin lan egitea. • Lan sortzailea baliatuz, gazteek egunero jasotzen duten informazio ugaria interpretatzeko duten gaitasuna bizkortzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasleak multimedia-eremuetan eta web ingurunetan edukiak diseinatu eta argitaratzeko gaitzea. • Blog bat egitea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Gazte gogotsu eta ipurtarinak, gauza berriak ezagutu eta egiteko gogoia dutenak. • 10 laguneko lantaldea. 	<ul style="list-style-type: none"> • 4 orduko 2 saio.





Bideoak grabatzen.

0. TESTUINGURUA

Moblogging-Erreportariak IA 18 aisialdi-programaren barruan kokatzen da. Lantegi hau, gure programako zenbait ekimen eta testuinguru oinarri hartuta (esaterako, %100InguruneMobila, PKTexpreses edo DINAMIK(TT)AK), hezkuntza-tresna parte hartzaile edo osagarri gisa egin da eta baita lantegi aske gisa ere.

Kasu bakoitzean, lantegia testuinguruaren edo behar zehatzen arabera moldatu dugu, lekua, iraupena edota landu beharreko gaiak kasuan kasu aldatuz.

Moblogging-Erreportariak besteak beste, honako leku hauetan egin dugu: Bilboko Arte Eder Museoa, Arteleku, Artium, Landatxo Gizarte Etxea, Abetxukoko Gazte Kluba, Elorrioko Institutua edo zenbait herritako saltoki-guneetan.



Lantegiaren azalpena.

1. MOBLOGGING-ERREPORTARIAK

Komunikazio-teknologiaren aurrerapenarekin batera, informazio-bideak eta edukien ekoizpena gero eta gehiago demokratizatzen dira. Honek guztiak, formatu berriak ekartzeaz gain (neurritan aukeratutako telebista edo Internet-a mugikorrean), erabiltzaileari hartzaile hutsa izatetik, bere edukia sortu eta igortzera pasatzeko aukera eman dio. Honela, komunikazio-bide horizontalagoak sortu dira, informazioa trukatzeko aukera dugu, interes berdintsuak dituzten komunitateak sortzeko modua dugu, etab.

Mugikorrek aspaldi utzi zioten telefono hutsak izateari eta orain, hamaika aukera desberdin eskaintzen dituzten multimedia terminalak dira. Politonoekin hasi ginen eta gaur egun, beste gauza askoren artean, ikus-entzunezko edukia bereizmen onarekin grabatzeko, editatzeko eta zabaltzeko aukera dugu eta hori guztia geure mugikorretik bertatik.

Moblogging-Erreportariak lantegi pedagogikoak, ibiltariak eta erabat praktikoak dira (araututako eta arautu gabeko testuinguruetan egin direnak) eta blogosfera eta komunikazioaren mundua (chat-ak, blogak, gailu mugikorrak...) lantzen dituzte. Lantegiaren helburua da gazteei oinarriko tresnak eta bitartekoak eskaintzea komunikazio-ohiturak sortzeko eta haien ikuspuntutik sortutako ikus-entzunezko edukia lantzeko.

Lantegiak "Erreportari-Mugikorrak" kontzeptuaren inguruan sortu dira. Edukiak ekoizteko eta informazioa igortzeko eredu berritzailea da. Modu horizontal honek taldeko sormena sustatzen du eta erabiltzaileen arteko harremanak indartzen ditu, sare eta kanal sozialak baliatuz eta kazetaritza hiritarra eta web 2.0 kontzeptuetan oinarrituz.



Telefono mugikorrarekin grabatzen.

2. HELBURUAK

Moblogging-Erreportariak lantegiaren helburu nagusia da gazteek gero eta eskurago dituzten teknologia berriak erabiltzen ikastea, albiste eta eduki sortzaileak ekoizteko, haien ikuspuntua emateko, interes berdintsuak dituzten komunitateak sortzeko, sozializatzeko, etab.

Bestalde eta informazio gisa, gazteak internetek eskaintzen dituen komunikazio-aukeren munduan murgilduko ditugu (blogak, fotologak, podcast, chat-ak, skype, myspace...). Parte-hartzaileek bitarteko eta euskarri horien guztien funtzionamenduari eta erabilgarritasunari buruzko ikuspegi orokorra izatea da helburu nagusia.

Hona hemen *Moblogging-Erreportariak* lantegiaren helburuak modu laburrean adierazita:

- Edukiak modu horizontalean mugi daitezten gizarte-sareak eta kanalak sustatzea, erreportari-mugikorra eta kazetaritza hiritarra kontzeptuak oinarri hartuta.
- Multimedia erredaktore-ideiarekin lan egitea.
- Lan sortzailea baliatuz, gazteek egunero jasotzen duten informazio ugaria interpretatzeko duten gaitasuna bizkortzea.

Bestalde, AMASTÉk helburu orokorrak ditu IA 18 lan-programaren barruan egiten dituen jarduera guztietan:

- Gazteengan parte-hartzea, sormena eta hiritar kontzientzia bultzatzea.
- Gizarte-agenteen (administrazioa, komunikabideak, etab.) eta gazteen arteko bitartekaritza-bideak ezartzea.
- IKTbak modu konstruktiboan erabiltzea, modu horizontalean, mundu digitalean jantzia izango den gizartea eraikiz.
- Gaur egungo gazteen tipologia eta interesak aztertzea (imaginarioa, nahiak, etab.).



Reporter@-moblogging.

3. EDUKIAK

Zer landuko dugu? Gaiak.

Moblogging-Erreportariak lantegia egin dugun bakoitzean, testuingurua desberdina izan da, beraz askotariko gaiak landu ditugu.

Gai guztien ezaugarri komuna izan da lantegiko parte-hartzaileengandik oso hurbil zeuden gaiak izan direla. Parte-hartzaileek eurek proposatzen dituzte lantegian landu eta aztertu beharreko gaiak.



Blogari edukiak sartzen.

4. METODOLOGIA ETA EKINTZAK

Metodologia analitikoa, parte hartzailea eta sortzailea da. Sormena eta "kazetaritza digitala" lantzen dituzten gaiak garatuko ditugu, beti ere ikuspegi erabat praktiko batetik. Lantegiko ariketa eta esperientzia guztiak emaitzak berehalakoak izan daitezten pentsatuak daude.

Lantegian zehar, ikasleak multimedia-eremuetan eta web inguruetan edukiak diseinatu eta argitaratzeko gaituko ditugu. Helburu hau lortzeko, ondoren aipatzen ditugun tresna hauek oinarritzko mailan erabiltzen erakutsiko diegu:

- Telefono mugikorren bidezko bideo eta argazki digitala.
- Edukiak editatzeko eta iraultzeko softwarea: Blogging (MoBlog, VideoBlog...) eta bideo-edizioa.
- FTP eta bestelako teknologiak: bluetooth, infragorriak, MMS, SMS...


5. LANTALDEA

Gaiak bezala, lantaldea ere aldakorra da testuinguruaren arabera. *Moblogging-Erreportariak* lantegian 10 laguneko taldeekin lan egingo dugu. Gazte gogotsu eta ipurtarinak izango dira, gauza berriak ezagutu eta egiteko gogoia dutenak.

Parte-hartzaile kopurua: 10 lagun

Adina: 16 – 22 urte

Sexua: Talde mistoa



Grabatzen.

6. EGUNAK ETA ORDUTEGIA

Moblogging-Erreportariak lantegiaren formatu-ereduan 4 orduko bi saio planteatzen dira.

7. KOKAPENA

Moblogging-Erreportariak besteak beste, honako leku hauetan egin dugu: Bilboko Arte Eder Museoa, Arteleku (Donostia), Artium (Gasteiz), Landatxo Gizarte Etxea (Gasteiz), Abetxukoko Gazte Kluba (Gasteiz), Elorrioko Institutua edo zenbait herritako saltoki-guneetan



Editando vídeos.

8. MATERIALA

Materiala:

- Jarduera garatzeko lantaldea.
- Azalpenak osatzeko material didaktikoa.
- Web-gunea eta on-line euskarria (hosting, bitakorak), parte-hartzaileek, lantegian zehar, multimedia blogak sortu ahal izateko eta ondoren, erabiltzen jarraitu ahal izateko.
- Softwareak eta bestelako tresna digital osagarriak (irudi- eta bideo – edizioa, testu-editorea, etab.).

Azpiegiturak:

- Lan egiteko gela eta ordenagailuak (ordenagailu bat birentzat; posible bada, hobe banaka).
- Lantegiaren alderdi teorikoa proiektatzeko bideo-kanoia.
- Telefono mugikorak eta bestelako sostengu-materiala (konexio kableak eta aplikazioen softwareak gordetzen dituen cd-a). Gazteek astean zehar lan egiteko aukera izan dezaten, mugikorak zein balditzatan utziko zaizkien pentsatu behar da.

Lantegiaren garapenean parte-hartzaile bakoitzak honakoak izango ditu eskura:

- Bereizmen handiko bideoa duen mugikorra.
- Multimedia postu bat bi pertsonentzako.
- Multimedia bloga (komuna edo bakarkakoa). Web-eremu hau autoekoizpenerako tresna izango da eta lantegiko edukiak modu errazean editatzeko ezaugarri eta aplikazio guztiak izango ditu (behin lantegia bukatuta, parte-hartzaileek indarrean mantendu ahal izango dituzte blog hauek). Wordpress.com edo Blogspot.com web-guneek blog pertsonalak egiteko doako lekua eskaintzen dute. Erabiltzen oso errazak dira eta interfaze aukera zabala eskaintzen dute. Gainera, kudeaketa- eta argitaratze –sistemak oso errazak dira.

9. EBALUAZIO-ADIERAZLEAK

Lantegia ebaluatzeko parte-hartzaileekin egindako ebaluazioaz gain, honako faktore hauek hartuko ditugu kontuan:

- Parte-hartze aktiboaren maila (bertaratzea, motibazioa...)
- Gazteen gogobetetze-maila (gazteen ebaluazioa)
- Harreman eta enpatia maila
- Taldearen harreman pertsonalak
- Taldearen hausnarketa-gaitasuna
- Sormen-gaitasuna
- Taldearen espiritu kritiko eta autokritikoaren maila
- Lantegian egindako gauzen eta emaitzen maila.



Edukiak ordenagailura bidaltzen Bluetooth Bitartez.



10. DOKUMENTAZIOA

Moblogging-Erreportariak lantegiaren inguruko zenbait kontu tekniko osatzeko link lagungarriak:

Kazetaritza Hiritarra-ren inguruko informazioa:

- http://es.wikipedia.org/wiki/Periodismo_ciudadano
- <http://www.periodismociudadano.com/>

Bideoblogei buruzko informazioa:

- <http://es.wikipedia.org/wiki/Videoblog>

Bideo digitala editatzeko programen zerrenda (erabilpen-baimenaren arabera antolatuta)

- http://en.wikipedia.org/wiki/List_of_video_editing_software

Bideoak optimizatu eta on-line biltegiara (Youtube, Vimeo, Slip...) igotzeko gakoak:


- <http://www.vimeo.com/help/compression>

Bideo-edizioa software librean:

- <http://www.dariola.net/?p=238>

Bideoblog bat sortzeko on-line gida:

- <http://www.freevlog.org/translations/spanish/index.html>



IA 18 web orrialdean blogg pertsonala.

11. LAN-ERANSKINAK

Hurrengo eranskinetan lantegiaren saio bakoitzeko bidai orria topatuko duzu.

1eranskina: 1. SAIOA

2eranskina: 2. SAIOA



12. KONTAKTUA

Lantegi hau **IA18** egitasmoaren barruan kokatzen da. **IA18** ekintza kulturalak sustatzeko programa da. Nerabeei ematen die hitza proposamen desberdinak aurkeztuz eta hiritar aktibo gisa haien munduaren definizioan parte har dezaten bultzatuz: haien imaginarioa, baloreak, interesak, kezakak, etab.

IA18

Aretxaga, 10

48003 Bilbao

946 053 468

www.casitengo18.com

info@casitengo18.com

Fitxa hau Creative Commons 3.0 España baimenarekin erregistratu da. Aske zara zure taldearekin lantegi hau egiteko, baina gogora ezazu ez dagoela formula magikorik eta hobe dela edukiak zure testuinguruaren eta taldearen beharren arabera moldatzea.



<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/legalcode.es>

Fitxa hau Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzarekin egin da.





1. SAIOA

HELBURUAK

Edukiak modu horizontalean mugitu daitezkeen **gizarte-sareak eta kanalak sustatzea**. **Multimedia erredaktore**-ideiarekin lan egitea. Lan sortzailea baliatuz, gazteek egunero jasotzen duten **informazio** ugaria **interpretatzeko duten gaitasuna** bizkortzea.

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
5 min.	Sarrera.		
10 min.	Ezagutza-jarduera.		
60 min.	Azalpena adibideak erabiliz.	- Moblog kontzeptua. - Youtube. - Web 2.0 (wikipedia).	- Ordenagailua. - Proiektatzeko kanoia. - Pantaila
30 min.	Ikus-entzunezko hizkuntzaren teoria eta mugikorraren erabilera azaldu.	- Ikus-entzunezko hizkuntza. - Mugikorra edukiak sortzeko erabiltzea.	- Ordenagailua. - Proiektatzeko kanoia - Pantaila. - Mugikorrak (kameradunak).
2h 15 min.	Bideoa sortu eta grabatu.	Taldearen araberako gaiak.	- Mugikorrak (kameradunak).

Sarrera-----5 min.

Parte-hartzaile bakoitzak bere izena duen pegatina jarriko du soinean eta izenen erronda egingo dugu.

Ezagutza-jarduera-----10 min.

Erretratuak: Bikoteka jarriko gara eta 10 segundotan eta papera begiratu gabe, lagunaren erretratu egingo dugu, bukatutakoan, bikotea aldatu eta gauza bera egingo dugu parte-hartzaile guztien erretratuak egin arte.

Bakoitzak bere burua erakusten duen erretratu gustukoena aukeratu du.

Azalpena adibideak erabiliz-----60 min.

Sarean dauden adibideak erabiliz, blogosfera eta moblog teknologiak azalduko ditugu:

Moblog kontzeptua: zer dakarren.

Youtube-ren funtzionamendua.

Web 2.0: Wikipediaren adibidea.

Ikus-entzunezko teoria eta mugikorraren erabilera-----30min.

Mugikorrak modu praktikoan erabiliko dira, edukiak sortuko ditugu, editatu egingo ditugu, etab.

Mugikorraren emaitzak eta aukerak aztertzeko lehen jarduera praktikoa egingo dugu.

Bideoa sortu eta grabatu-----2h 15 min.

Binaka edo talde txikietan, bideo bat pentsatu eta gidoia egin. Pentsatua dutenean, lanari ekiteko prest egongo dira.



2. SAIOA

HELBURUAK

Multimedia erredaktore-ideiarekin lan egitea.
Lan sortzailea baliatuz, gazteek egunero jasotzen duten **informazio** ugaria **interpretatzeko duten gaitasuna** bizkortzea.

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
20 min.	Edukiak ordenagailura irauli.		- Mugikorrak. - Ordenagailuak.
30 min.	Edizioaren inguruko azalpena.	Bideoak nola editatu Eduki berrien edizioa, etab.	- Ordenagailuak. - Proiektatzeko kanoia. - Pantaila. - Edizio-programa.
120 min.	Bideoaren edizioa.		- Ordenagailua. - Edizio-programa.
20 min.	Argitaratzearen inguruko azalpena.	Edukiak blogetara irauli. Blogetan iraulitako edukien inguruko hausnarketa, etab.	- Ordenagailua. - Proiektatzeko kanoia. - Pantaila.
40 min.	Bideoak argitaratzea.		- Ordenagailuak.
10 min.	Komunean jarri.		- Ordenagailuak.

Edukiak ordenagailura irauli ----- **20 min.**

Edizioaren inguruko azalpena----- **30 min.**
Egindako bideoak nola editatu azalduko da labur.

Bideoaren edizioa----- **120 min.**
Parte-hartzaileek aurreko saioan grabatutako bideoak editatuko dituzte.

Argitaratzearen inguruko azalpena----- **20 min.**
Blogean edukiak argitaratzeko azalpenak, etab.

Bideoak argitaratzea ----- **40 min.**
Parte-hartzaile bakoitzak bere blogean editatutako edukiak argitaratuko ditu.

Komunean jarri----- **10 min.**
Parte-hartzaile bakoitzak bere blogean zintzilikatu duen edukia komunean jarriko da. Blogetako edukien inguruko hausnarketa, zer egin eta nola egin.

OHARRA:

Parte-hartzaileek lantegiko bi saioen artean arazoak edo zalantzak izan ezkerro edo bideoak zintzilikatu nahi izan ezkerro, museoa bertan laguntza-talde teknologikoa izateko aukera aztertu dugu.